



Bere Maiestatearen Gabonetako mezua

2018ko abenduaren 24a

Gabon.

Sentimendurik onenek batu behar gaituzten egun bereziotan, Gabon zoriontsuak opa nahi dizkizuet Erreginarekin eta gure alaba Leonor Printzesarekin eta Sofía Infantarekin batera, 2019an zuen desira eta itxaropen guztiak beteko direlakoan.

Gaur ezin ahantz ditzakegu, arrazoi pertsonalak, ekonomikoak edo sozialak direla medio, egoera zailean dauden pertsonak, ezta etxetik eta lagun maiteengandik urrun daudenak ere. Alai egoteko eta ospatzeko une hauetan, gure bihotzean eta gogoan ditugu haiek guztiak, eta espero dugu inguruabar horiek ahalik eta lasterren bazter utzi ahal izatea.

Azken urteotan, nire kezka eta gogoetak helarazi dizkizuet Gabonganean, besteak beste: gure demokraziari buruz; gizarte- eta lurraldekohezioari, ekonomiari eta langabeziari edo hezkuntzari buruz; baita ustelkeriari, terrorismoari nahiz emakumeen aurkako indarkeriari buruz ere. Egun, tamalez, maiz gertatzen da indarkeria arbuiagarri hori; errotik kenduko badugu, nahitaezkoa da gizarte osoak horren aurka egitea, irmo eta batera. Aipatutako gai horiek biziki kezkatzen gaituzte oraindik.

Gau honetan, berebiziko garrantzia duen beste zerbaiti buruz hitz egin nahi dizuet. Bizikidetzari eta horren oinarri heldu nahi diet, oraina, etorkizuna eta belaunaldirik gazteenak gogoan. Azken horiei, hain zuzen, hitz egin nahi diet gaurko honetan.

Pasa den abenduaren 6an, Konstituzioaren 40. urteurrena zela eta, trantsizio politikoan zehar espainiarrak adoretu eta elkartu zituzten idealak gogorarazi nituen berriro; izan ere, gure askatasunaren eta aurrerapenaren funts izan dira azkeneko 40 urteotan: adiskidetasuna eta adostasuna; elkarrizketa eta akordioa; integrazioa eta elkartasuna.

Urteotan bizitakoek ondo asko dakite gure herriaren eta horren etorkizunaren alde elkarrekin lan egin izanak bereizten dituela; hots, espainiarrek elkar ulertzeko eta lider politiko, ekonomiko eta sozialak ados jartzeko borondateak, ideia eta sentipen desberdinak izan arren.

Helburu bera zuten denek, argi eta garbi: Espainian demokrazia eta askatasuna ezartzea; bizikidetza bermatzeko arau komunak zehaztea. Eta lortu egin zuten. Hurrengo belaunaldiok onura atera diogu arrakasta horri. Horrenbestez, ahal den guztia egin behar dugu printzipiook galdu eta ahaztu ez daitezen, eta denek guztion arauak errespetatu dituzaten. Hala, berme handiagoekin ziurtatuko gara aurrerapenez beteriko hamarkada gehiago izango direla gazteentzat, guk —zorionez— ezagutu ditugunak bezalakoak.

Ziur nago trantsizioaren protagonista edo lekukook ondo ulertuko duzuela oraintxe esandakoa. Gure historiaren aldi horren berri eman behar dizuegu hura bizi ez zenutenoi, eta, bereziki, belaunaldirik gazteenei. Izan ere, horrela uler daiteke Espainiak nola eta zergatik erdietsi dituen inoiz ez bezalako aldaketak; zergatik eta nola egin duen aurrera gizarteak harrezkero.

Uste dut beharrezkoa dela hala egitea. Baina ez da nahikoa. Gizarte garen aldetik, zorretan gaude gure gazteekin. Haien etorkizunaren erantzule gara, eta egungo baldintzak ez dira errazena, inondik ere ez.

Gizarte teknologikoan bizi zarete gazteok, non aldaketak bizkor eta etengabe jazotzen baitira. Galdera ugari sortzen ditu errealitate horrek, baita aukera berriak ere. Talentua daukazue, bakean sinesten duzue, mundura begiratzen duzue europarrak zaretelako eta hala sentitzen zaretelako; solidarioak ere bazarete, eta konpromiso irmoa duzue gizarte-auziarekin, klima-aldaketaren aurka eta ingurumena babestearren alde. Bizi eta elkarrekin bizi nahi duzue, baina arazo larriak dituzue.

Jakin badakizue oso zaila dela lana aurkitzea prestakuntza egokirik gabe. Eta izanagatik ere, zuotako askok jasotako prestakuntzarekin zerikusirik ez duten edo zuon itxaropenekin bat ez datozen lanpostuak bete behar dituzue nahitaez. Lagundu behar dizuegu: bizitza pertsonal eta profesionala eratzen, lan eta soldata duinekin; bizileku egokia izaten eta, hala nahi izanez gero, familia osatzen eta hura lanarekin uztartzen.

Zuen gaitasun, motibazio, ilusio eta ahaleginak zailtasun guztiak garaitzea da gure eta gizarte osoaren ardura nagusia. Herrialde hobea, sortzaileagoa eta dinamikoagoa eraiki behar dugu —zuokin eta zuon energiarekin— egunez egun, abangoardian, betiere. Espainiak gizarte-kohesio handiagoa behar du, baita gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna ere.

Finkatutako demokrazian bizi gara gaur egun, eta inguruko beste demokrazia batzuen printzipio eta balio berberak ditugu. Hori dela eta, ezinbestekoa da gure bizikidetza une oro bermatzea.

Pertsonak, ideiak eta besteen eskubideak aintzat hartu eta errespetatu behar ditu bizikidetzak, eta espainiar guztiok elkartzen gaituzten —eta beti elkartu behar gaituzten— lotura sakonak zaindu eta indartu. Bizikidetzak ez da bateragarria gorrotoarekin eta erreminarekin, gure historiarik txarrenaren parte baitira jarrerok; hartara, ezin dira berpiztu. Bizikidetzan, arazo handiak eta bidegabekeriak ez dira zatituz gainditzen, are gutxiago liskarren bidez, erronken eta oztopoen aurrean ados jarrita baizik.

Hitz batez, bizikidetzak Konstituzioa errespetatu behar du, ez baita errealitate bizigabea; aitzitik, gure eskubideak eta askatasunak babesten dituen errealitate bizia da. Proiektu orok oinarri sendoak behar ditu, eta egungo Espainiak baditu, adostasuna, bakea eta elkar ulertzea xede dituelako.

Gau berezi honetan, hausnarketa hau helarazi nahi dizuet: bizikidetzak da espainiarron ondarrerik baliotsuena, eta hauskorra da beti. Gure demokraziaren egintzarik preziatuena da, belaunaldirik gazteenei utz diezaiekegun legaturik onena. Horregatik, hondatu eta higa dadin saihestu behar dugu; defendatu, zaindu eta babestu behar dugu, arduraz eta ziurtasunez. Hala egin dugu azken berrogei urte askeotan, gure buruarengan eta indarretan sinetsi baitugu.

Harro baliotsu behar dugu nor garen eta zer egin dugun, eta uste osoa izan behar dugu elkarrekin lor dezakegun horretan, desengainua eta ezkortasuna alde batera utzita. XXI. mendearen errealitate berriaz ohartu behar dugu, eta gai izan behar dugu Espainia eraberritzea ahalbidetzen duten hiri- eta gizarte-kontsentsuak erdiesteko.

Egin dezagun aurrera etorkizunean konfiantza izanik. Kemenez eta atsedenek gabe. Asko egin baitezakegu egunero guztion ongiaren alde; bakoitzak dagokiona eginez eta bere eginbeharra betetzen duenari lagunduz; behar duenari adorea emanaz —inor atzean utzi gabe— eta Espainia etengabe hobetzeko indar guztiak batuz. Espainiarrok merezi dugu.

Ekin desafio horiei. Eskerrik asko entzuteagatik. Berriz ere, Eguberri ona opa nahi dizuet denoi, baita zuen familiari ere.

Eguberri on. Bon Nadal. Boas festas.
Buenas noches. Eta urte berri on.